

{ koaderno } **Gorka Elejabarrieta**

# Estatuturik gabeko herriak demokraziarako bidean

**E**statuturik gabeko herriak modu askotan sailka genitzake; haien indar abertzaleek bozetan duten indarraren arabera, gobernu zentralean dituzten harremanen arabera, autodeterminazio eskubidea onartuta duten edo ez kontuan izanda... Bai, badira Europar autodeterminazio eskubidea onartuta duten herriak. Badira, era berean, estatuekin aldebiko harreman eraikitzaileak dituztenak eta dagozkien subiranotasun esparruak estatuaren esku uzten dituztenak. Eta badira oso bestelako harremanak dituztenak ere. Azpimarragarria da azken urte eta hamarkadotan zenbait tokitan abertzaleek nabarmen egin dutela gora bozetan: Katalunia, Korsika, Flandria, Irlanda eta Eskozia dira gure ingurune hurbilean horren adibide.

Kasu horietako askotan indar abertzaleak gobernura heldu dira, eta ez hori bakarrik, horietako batzuek agenda independentista ere martxan daukate. Argi dago agenda independentista horiek garapen maila ezberdina dutela tokian toki, baina ez dezagun ahaztu Kataluniak eta Eskoziak erreferendumak egin dituztela azkenengo bost urteotan, edota Kanakyn erreferendum bat egin berri dutela eta laster izango dutela beste erreferendum bat antolatzeke aukera. Duela hamabost urte ezinezkoa zirudien eta ez dakigu hurrengo bost urteetan zer gerta daitekeen.

Izan ere, egoera nahasia da Irlandari eta Eskoziari dagokionez. Artikulu hau idazterakoan ez dago argi Brexita nola eta noiz gauzatuko den, baina asko dira Brexita zabal ditzakeen aukerak: Eskoziak bigarren erreferendum bat antola dezake epe laburrean eta Irlandan Ostiral Santuko Akordioa egikaritu eta uharte osoan "Border Poll" izeneko batasun erreferenduma antolatzeke aukera handia egongo litzateke Brexitarren ondorioz ipar-hego muga berrezarriko balitz.

Indar abertzaleek gehiengo elektoral garrantzitsuak ere lortu dituzte. Korsikan, adibidez, indar abertzale

eta autonomisten aliantzak, hegemonia elektoral eta politikoa eskuratu du azken urteotan eta Korsikaren interesen defentsan elkarlanean ari dira indarrok. Estatu frantsesaren jarreraren aurrean herri gisa jardun eta aurrerapausoak ematen ari dira.

Kasu horiekin batera ezin dugu Flandria ahaztu. Maiatzaren 26an egingo duten hauteskunde egun garrantzitsuen ostean, Flandria eta Belgikan zer gertatuko den misterio hutsa da, baina dudarik ez dago Belgikaren etorkizuna berriz ere kolokan egongo dela. Izan ere, maiatzaren 26an hauteskunde federal, europar eta erregionalak izango dituzte (Flandrian, Valonian, Bruselan eta kultura germaniarreko zonaldean), eta, azken urteetako joerak jarraituko balu –eta zantzu guztien arabera horrela izango da–, emaitzak Gobernu Federala osatzeko agertoki konplikatuak ekarri eta Flandriak bide propioa egiten jarraituko du.

Aurreko adibideetan ikusi dugunez, Europar demokrazia gailentzen ari da estatuturik gabeko herrien auziari erantzuteko. Badira, aipatutakoez gain, beste zenbait adibide ere; Groenlandia eta Faroe uharteak, kasu. Gaur-gaurkoz, zoritxarrez, Espainia kontrako norabidean doa. Baliteke Espainiak Europatik datorren olatuarekin bat egitea eta erabakitzeke eskubidea onartzea etorkizunean, ez litzateke Espainia Europatik datorren joera jarraitzea behartuta izango litzatekeen lehenengo aldia. Baina jakin badakigu gaur-gaurkoz ez dirudiela bide horri ekingo dionik.

Edozein kasutan bi hipotesi mantendu beharko ditugu, epe luzera biak: lehenengoa, Espainiak Europaiko beste hainbat zonaldetan emandako irteera demokratikoaren aldeko apustua egitea, eta, bigarrena, Espainiak orain arte erakutsitako izaera antidemokratiko eta autoritarioari eustea. Etorkizuneko estrategiak diseinatzean bi hipotesi horiek gogoan izan beharko ditugu eta bi agertokietarako prest egon beharko dugu. •

Europar demokrazia gailentzen ari da estatuturik gabeko herrien auziari erantzuteko